getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala
#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1884 zk.
www.getxo.eus

Urriak 15
>> Urriak 25

2026

/ Nabarmentzekoak

> Euskal eta suediar errepertorio tradizionalaren fusioa Muxikebarrin (3. or.)

> Auzoka: jarduerak eta jolasak haurrentzat eta familientzat udalerriko lau plaza eta parketan (4. or.)

> Jagoba Mardarasek "La historia del remo en Algorta" osatu nahi du (4. or.)



*Getxo Eszena-Arte Eszenikoen Jardunaldiek gaurkotasun kulturala eskaintzen jarraitzen dute (3. or.)

A- GENDA

Kontzertuak. Hilak 16, ostirala, 20:15ean, Aita Trinitarioen elizan, Zozoak Abesbatzaren eta BBKantuzen eskutik. Hilak 24, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, Arpe Diemen emanaldia.

Mikologia Jardunaldiak. Hilak 25, igandea, 11:00etatik 14:30era, San Nikolas plazan, erakusketa, mikologi-dastatzea eta perretxikoak sailkatzeko txapelketa.

Udalak berriro lizitatuko du hiri-autobusaren zerbitzua

Udalak berriro lizitatuko du Getxobus hiri-autobusaren zerbitzua, hasierako lizitaziora aurkeztutako bi enpresek ez baitituzte bete pleguetan ezarritako baldintzak.

Lizitazio berrian baldintza tekniko eta ekonomiko berberak mantenduko dira, baita aurreikusitako aurrekontua ere. Aldaketa bakarra proba pilotuaren iraupenari dagokio: 12 hilabetetik 8 hilabetera murriztuko da. Aldaketa horrekin, lizitaziora enpresa gehiago aurkeztea erraztu nahi da.


Aurreikusitako epeak mantenduko dira

Lizitazio berri hau izapidetzeak ez du aldaketarik ekarriko zerbitzua martxan jartzeko aurreikusitako egutegian. Hala, zerbitzua urte amaieran abian jartzea aurreikusten da.



Aldi berean, Udalak Getxobus martxan jartzeko beharrezkoak diren gainerako arau eta administrazio-prozedurak izapidetzen jarraitzen du. Horrela, lizitazio berria izapide horiekin batera garatuko da, hasieran aurreikusitako epeei eragin gabe.

Proba pilotuak iraungo duen zortzi hilabeteetan, zerbitzuaren jarraipena egingo da, erabilerari, eskariari eta herritarren mugikortasun-beharrei buruzko datuak biltzeko. Informazio horrek zerbitzuaren funtzionamendua ebaluatzeko eta etorkizuneko udal hiri-garraioaren ereduaren ezaugarriak zehazteko balioko du.



Komikiaren asteburua

Asteburu honetan, urriaren 16tik (ostirala) 18ra (igandea), Romon eta Areetan ospatuko da Komiki Azokaren hogeita laugarren edizioa. Areetako Geltokiko plazan azokaren merkataritza-guneko etxolak egongo dira (liburudendak, argitaletxeak eta *merchandising* establezimenduak), eta Romo Kultur Etxean jardueren programazioa garatuko da (hitzaldiak, sektoreko egile eta profesionalekin topaketak, sinaduren txandak, aurkezpenak, tailerrak eta erakusketa bat). Besteak beste, Miguelanxo Prado, Laureano Domínguez, Lorenzo Montatore, Teresa Valero, Juan Díaz Canales, Núria Tamarit, Miguel Brieva, Borja González, Clara eta Olivia Cabez, Laurielle eta Teresa Ferreiro artistak eta sektoreko profesionalak izango dira bertan. Informazioa: https://labur.eus/3tzosenv



Hitzordu berria Getxo Modarekin

Getxo Moda urriaren 28an eta 29an ospatuko da. Programazioa hilaren 28an hasiko da, asteazkena, 15:00etan, Getxo Elkartegian, *La Moda del Futuro ya es Presente* mahai-inguruarekin, sektoreko hainbat arlotako profesionalekin. Hurrengo egunean, 13:00etan, Muxikebarrin, Getxo Moda Lab pasarelak Euskadiko talentu emergentea erakutsiko du, eta ibiltoki nagusia 20:00etan izango da, Assaad Awad nazioarteko diseinatzailearen, Getxoko saltokien eta euskal diseinatzaileen parte-hartzearekin. Edizio honek Abraham de Amezagaren ibilbidea aitortuko du Bikaintasun Profesionalaren Sariarekin. Lehiaketa asteartean aurkeztu zuten Nuria Barreiros Getxo Enpresako presidenteak, Juanma Gonzalez GetxoLaneko zinegotziak eta Izaskun Gómez Eusko Jaurlaritzako Merkataritza zuzendariak.

A- GENDA

URRIAK 15 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00eta, Romo Kultur Etxean, "Sombreros con mucho cuento", Beldebilekin.

IV Zine Foruma. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Agnieszka Hollanden "Copying Beethoven" eta hitzaldia José Manuel Gutiérrez irakaslearekin. Izena emateko (doan): cineforumgetxo@icmediaeuskadi.es edo 646 70 01 86 (whatsapp).

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Cantando bajo las balas", Luna Hienarekin. 15 euro.

URRIAK 16 OSTIRALA

Asteklima. Hainbat jarduera hilaren 22ra arte. Informazio gehiago: https://labur.eus/ejqw1w5z

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 10:30-11:30, "Punta Begoña Galeriak eta paisaia mehatxaria" (euskaraz). Info: info@puntabegonagetxo.eus / www.ondareabizkaia.eus

Getxoko Komiki Aretoa. Igandera arte. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00. Igandean 20:00ak arte. **Gune komertziala:** Areetako Geltokiko plazatik, Ibaiondo kalea eta Santa Eugenia plaza. **Jarduerak:** Romo Kultur Etxean. Info: https://labur.eus/bmf2inwb

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Lagunas y niebla", La-Jovenekin. 10 euro.

Kontzertua. 20:15ean, Trinitarioen elizan, Zozoak Abesbatzaren eta BB-Kantuzen eskutik.

URRIAK 17 LARUNBATA

Getxoko Komiki Aretoa. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00. **Gune komertziala:** Areetako Geltokiko plazatik, Ibaiondo kalea eta Santa Eugenia plaza. **Jarduerak:** Romo Kultur Etxean. Info: https://labur.eus/bmf2inwb

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 10:30- 13:30 h, "Hondakinen eta sustraien artean: ondarea Boluetik Martiartura" (gazteleraz). Info: Tel: 688 88 35 96, info@ingurumenaretoagetxo.eus

Storytime. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "The World's Worst Witch" (ingelesez), 3-7 urte. Izena emateko doan: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Ikuskizun kulturala eta musikala. 19:00etan, Muxikebarrin, "Algorta-Uppsala: Abestuz batu". Gonbidapenak Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin.

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Yo solo quiero irme a Francia", María Galiana, Nieve de Medina, Anna Mayo eta María Rojarekin. 15 euro.

URRIAK 18 IGANDEA

Getxoko Komiki Aretoa. 11:00-14:30 eta 17:00-20:00. **Gune komertziala:** Areetako Geltokiko plazatik, Ibaiondo kalea eta Santa Eugenia plaza. **Jarduerak:** Romo Kultur Etxean. Info: https://labur.eus/bmf2inwb

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua eta inklusiboa. 11:00-13:00 h, "Ondarearen detektibeak" (gazteleraz). Info: info@asebier.org

Getxo Eszena. Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Izeba txirrita" (euskaraz), Zelako Kultur Ideiakekin. 10 euro.

URRIAK 19 ASTELEHENA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Toponimia ibilbidea. 18:00-19:30, "Neguri" (euskaraz). Info: Tel: 627 89 93 20, getxo.toponimia@gmail.com

Hitzaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Ver bien para vivir mejor. Cuidar la vista al envejecer". Hizlaria: Pablo Morales (Oftalmologoa). Antolatzailea: Gizatiar.

URRIAK 20 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANE-Algortako Jubilatuen egoitzan, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Liburuaren aurkezpena. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean "Titiritari" (euskaraz), Miren Amuriza idazlearekin eta Miren Larrea aktorearekin.

URRIAK 21 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Liburuaren aurkezpena. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean, "El peso de la luz", bere egilea Aurelio Gutiérrezekin.

URRIAK 22 OSTEGUNA

Literatura-topaketa. 18:00etan, Udal Egoitzan, Carmen Torresen "Después de todo" liburuaren inguruan.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Toponimia ibilbidea. 18:00-19:30, "Portu Zaharra" (euskaraz). Info: Tel: 627 89 93 20, getxo.toponimia@gmail.com. Hitzaldia. 19:00etan, "Getxoko eskaintzak: ondare ahaztua" (gazteleraz). Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Sidari" (euskaraz), XAKE Produkzioak taldearekin. 12 euro.

URRIAK 23 OSTIRALA

Liburutegien eguna. Mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenek liburu bat jasoko dute opari (agortu arte), udal liburutegietan.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatu teknikoa. 11:30-12:30, "Punta Begoña Galeriak berrirudikatu: obrak direla-eta irekia". Info: info@puntabegonagetxo.eus / www.ondareabizkaia.eus Bisita gidatua. 19:00etan, "Itsas debozioa: Getxoko eskaintzak". Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus. Gazteleraz.

Getxo Eszena. Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Adriene Bergson-Johnson" (euskaraz), Itzuli konpainiarekin. 8 euro.

URRIAK 24 LARUNBATA

Jardunaldi mikologikoak. Perretxikoak biltzeko irteera Getxo eta inguruti, 09:00etatik 13:00era. Arratsaldean jasotakoa sailkatuko da Aldai Patronatuan. https://basozaleak.com/

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 10:30-13:30, "Harea berpizten den lekua: Azkorriko dunak". Info: Tel: 688 88 35 96, info@ingurumenaretoagetxo.eus. **Bisita gidatua.** 17:00etan, "Punta Begoña Galeriak eta paisaia mehatxaria". Info: info@puntabegonagetxo.eus / www.ondareabizkaia.eus. Gazteleraz.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, "Arpe Diem" taldearekin: Begoña Antruejo eta Leonor Hennequet (arpa), Elena Kopteva (txelo) eta Patxi García Gamilla (tenorea).

Getxo Eszena. Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "No", La Veniderarekin. 8 euro.

URRIAK 25 IGANDEA

Jardunaldi mikologikoak. 11:00-14:30, San Nikolas plazan, Erakusketa, dasdaketa mikologikoa, txapelketa…

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 16:30ean, "Denborari aurka egin: hileta-ondarea eta istorioak" (euskaraz). Info: Tel: 94 491 08 00 y infoturismo@getxo.eus

Getxo Eszena. Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Tretatxu" (euskaraz), Anita Maravillasekin. 8 euro.

Getxo Antirrazistaren antzerki tailerraren saio gehiago

Udalak sustatutako Getxo Antirrazista Estrategiaren antzerki taldeak saio gehiago antolatu ditu urritik 2027ko martxora arte. Helburua da sentsibilizazio lana egiten jarraitzea eta arrazakeriaren aurkari eta pribilegio zuriari buruz hausnartzea.



Oraingoan ere Aitor Vinagret aktore eta sortzaileak gidatuko ditu tailerrak, Leticia Urretabizkaia hezitzaile eta Meloia Zuritzen taldeko kideak lagunduta.

Doako saioak urriaren 26an, azaroaren 23an eta abenduaren 21ean izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Gobelaurre Boluntariotza Zentroan. Datorren urteko lehen hiruhilekoko saioen datak aurrerantzean ezagutuko dira eta martxoaren 21ean ospatzen den Arraza Diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Egunean antzerki emanaldi batek emango dio amaiera prozesu esperimentalari.

Izenematea: antirumores@getxo.eus / 662 425 662

Aldaketak Getxo Kulturako programazioan Hauteskunde Orokorrengatik

Azaroaren 29ko Hauteskunde Orokorrak direla eta, azaroaren 27, 28 eta 29ko Getxo Kulturaren programazioan aldaketak izango dira, Muxikebarri eta Romo Kultur Etxea hauteslekuak baitira.



Horiek horrela, aipatutako egunetan, honako aldaketa hauek izango dira programazioan

Muxikebarriko ikuskizunak eta jarduerak

- Anonimak taldearen kontzertua (hilak 27, ostirala) eta *Un siglo de abismos* antzerki-ikuskizuna (hilak 28, larunbata) bertan behera geratuko dira. Getxo Kultura bi ikuskizun horiek datorren urtean berriro programatzen saiatuko da.
- Igandean, hilak 29, programatuta zegoen *Fly Me to the Moo* haurrentzako ikuskizuna aurreko asteko igandera, azaroaren 22ra, aurreratuko da. Aurreikusitako ordutegia (18:00etan) mantenduko da.
- Igandean, hilak 29, programatuta zegoen Zinematxiki haurrentzako zinema-zikloko emanaldia bertan behera geratuko da.

Romo Kultur Etxeko jarduerak

- Azaroaren 27ko Zine-Kluba eta 29ko Igandeko Haur Zinema zikloen emanaldiak bertan behera geratuko dira.

Sarrerak

- Online erositako sarreren kasuan, itzulketa automatikoki egingo da. Getxo Kulturaren salmenta-puntu fisikoetan egindako eroskteten kasuan, Muxikebarriko leihatilara joan beharko da itzulketa eskatzeko.
- *Fly Me to the Moon* haurrentzako ikuskizunaren kasuan, hasierako datarako aurrez erositako sarrerak azaroaren 22rako baliodunak izango dira. Ados ez egonez gero, horien itzulketa egingo da.

"Gurot" jolasa, orain pertsona helduentzat ere

Bost udalek, tartean Getxokoak, eta bi mankomunitatek, hainbat entitateren laguntzarekin, *Gurot* trivial moduko euskarazko aplikazioaren lehiaketa pertsona helduentzat ere antolatu dute. Orain arte gazteentzat antolatu izan dituzte lehiaketak eta oraingoan herri inplikatuetako 16 urtetik gorako bizilagunek jolastu ahal izango dute mugikorrean, tabletean edo ordenagailuan, baliabide egokia delako ez bakarrik eskolarako baizik eta edozein adinetarako ere. Sariak landa-turismoko establezimendutarako bi bono izango dira.

Mundu mailan garrantzia duten kultura orokorreko galderak eta bertakoagoak diren beste batzuek osatutako jolas didaktiko eta entretenigarria da *Gurot*, baita interesgarria aisialdi hezitzailean interesa duen edonorrentzat ere.


Oraingo lehiaketan, azaroaren 9tik abenduaren 13ra arte jolastu ahal izango dute pertsona interesatuek. Horretarako izena www.gurot.eus webgunean eman beharko dute (orain arte erregistratua ez badaude).

Hautesle-Erroldaren kontsulta

Datorren azaroaren 29an Gorte Nagusietarako Hauteskundeak izango direla eta, 2026ko abuztuaren 1ean itxitako Hautesle-Errolda urriaren 19ra arte (barne) egongo da jendearen kontsultarako, erreklamazioak onartze aldera.

Errolda hori astelehenetik ostiralera lanegunetan kontsultatu ahal izango da, 08:00etatik 14:00etara, bai Estatistika Unitatean (Foru kalea, 1), bai Herritarrentzako Arreta Bulegoetan (Torrene kalea, 3-Algortan eta Mesedeetako kalea, 13-Areetan). Ez da beharrezkoa aldez aurretiko hitzordua eskatzea.

Gogoan hauxe dela erreklamazioak egiteko unea.



Getxo Eszena-Arte Eszenikoen Jardunaldiek gaurkotasun kulturala eskaintzen jarraitzen dute

Getxo Eszena-Arte Eszenikoen Jardunaldiek aurrera jarraitzen dute. Urriaren 1ean hasi eta hilaren 25ean amaituko dira eta egun hauetako antzezpenak *Lagunas y Niebla*, *Yo solo quiero irme a Francia*, *Izeba Txirrita* y *Sidari* dira, oroimenari buruzko ikuspegi desberdinei buruzkoak.

Ostiral honetan, urriak 16, 20:00etan, LaJoven taldea igoko da eszenatokira **Lagunas y Niebla** antzezteko. Obra honek memoria, nortasuna eta iraganak belaunaldi berriengan uzten dituen arrastoak ditu ardatz. Begirada gazte eta hurbil baten bidez, isiluneek eta absentziek markatutako familia-historia bati aurre egitean sortzen diren galderak aztertzen ditu. Garenaz eta geure memoria nola eraikitzen dugun hausnartzeko bidaia eszenikoa. Sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Larunbatean, hilak 17, 20:00etan hasita ere, María Galiana aktore ezagunak, Nieve de Medina, Anna May eta María Roja aktoreekin batera, *Y***o solo quiero irme a Francia** izenburukoa antzeztuko dute. Gerraostean girotutako komedia garratz honek memoria, abandonua eta belaunaldien arteko herentzia emozionala ditu ardatz. Umorea eta magia uztartzen dituen obra da, askatasunaz eta geure lekua aurkitzeko beharraz hitz egiten duena. Sarreraren prezioa 15 eurokoa da.

Haurrentzako antzerkia izango da urriaren 18ko (igandea) protagonista, 18:00etan, **Izeba Txirrita** muntaia izango baita Zelako Kultur Ideiak taldearen eskutik. Miren Gojenola, Irene Hernando eta Gontzal Royuela, Olatz Gorrotxategiren zuzendaritzapean, etxe-aldaketa baten erdian, zoriak bi nerabe eta haien izeba zaharrena familia-etxe zaharrean elkartuko ditu. Kutxa bakoitza ireki ahala, izebaren bizitzarekin eta ezagutzen ez zuten garai batekin, Gerra Zibilarekin, lotutako sekretuz eta istorioz beteriko altxorrak aurkituko dituzte. Hasieran gazteek ez diote arreta handirik jarriko, baina pixkanaka iraganeko istorio horiek oraindik bizirik daudela ikusiko dute, eta memoria kolektiboaren ariketa batean murgilduko dira. Saioaren sarreraren prezioa zortzi eurokoa da.

Eta ostegunean, hilak 22, Xake Produkzioakek **Sidari** aurkeztuko du, euskaraz ere. Kepa Errastiren obra eta Getari Etxegaraik zuzenduta, Jonek eta Jokinek, hogeita hamar urte inguruko bi gaztek, Europan zeharreko bidaia bati ekiten diote euren zortzigarren urteurrena ospatzeko, baina harremanari buruzko zalantzak ere bidelagun izango dituzte. Ibilbidean zehar, azaldu ezinezko esperientzia baterako atea irekiko dien adineko bikote bat ezagutuko dute. Hurbil zaitezte maitasunari, denboraren joanari eta gure etorkizuna markatzen duten erabakiei buruzko istorio honetara. Antzezpena 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa izango da.



Euskal eta suediar errepertorio tradizionalaren fusioa Muxikebarrin

Muxikebarri *Algorta-Uppsala: abestuz batu* proiektuaren agertoki izango da larunbat honetan, hilak 17, Getxoko Kimetz abesbatzak eta Suediako Regionkören Uppsala Län taldeak bultzatutako kultur eta musika trukea. Euskadiko eta Suediako ahotsek bat egingo dute Getxon, musika koralaren bidez bi lurraldeen arteko lotura kulturalak indartzen dituen ekimenari esker. Talde getxotarrak Suediako taldea hartuko du anfitrioi gisa, bi errepertorioek eszenatokiaren gainean hitz egingo duten kontzertu bateratu bat eskaintzeko; kultur trukea eta pertsonak eta kulturak batzeko musikaren boterea ospatzen dituen musika topaketa paregabe batez gozatzeko aukera izango da. Kontzertua 19:00etan hasiko da eta sarrera gonbidapen bidez izango da. Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean jaso daiteke.




Andrés Isasi Musika Eskolako talde baten emanaldia Urdulizko Ospitalean

Urdulizko Ospitalean bisita oso berezia egin zuen Andrés Isasi Musika Eskolako musika-talde batek joan den ostegunean, urriak 8. Izan ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren *Soinuak* proiektuari jarraipena emateko egin zuen bisita. Ekimen horren helburua osasun arreta humanizatzea da, musikaren bidez eta ospitaleratutako pazienteei laguntza emozionala emanez. Proiektu horren bidez, Uribe eskualdeko udal musika zentroetako ikasle eta irakasleek zuzeneko emanaldiak eskaintzen dituzte ospitaleratutako pazienteentzat. Joan den maiatzean Getxoko eskolako piano ikasleek parte hartu zuten eta, oraingoan, ikastetxeko hari eta perkusio talde batek jo du aipatutako erietxean. Bi kasuetan, harrera bikaina izan zuten musikariek pazienteen, senideen eta osasun profesionalen aldetik.

Auzoka: jarduerak eta jolasak haurrentzat eta familientzat udalerriko lau plaza eta parketan

Datorren abenduaren 19ra arte *Auzoka* 6 eta 11 urte bitarteko haurrei eta haien familiei zuzendutako euskarazko jarduera eta jolas programa hasiko da egiten Getxon. Ekimena 2026ko udal aurrekontu parte-hartzaileen barruan kokatzen da eta bere helburua izango da espazio publikoa jolas gune gisa indartzea, eta adingabeak eta familiak ingurune irisgarrietan parte hartzea sustatzea.

Ekimena doakoa izango da eta interesatuek ez dute aurretik izenematea egin behar izango. Programa hurrengo lau plaza eta parketan eramango da aurrera: Romoko Santa Eugenia plazan, Algortako Aldapa parkean, Areetako Bizkaia Zubia plazan eta Malakate parkean. *Auzoka* ekimena ostiralero izango da eta gainera abenduan bi larunbatetan ere.



Besteak beste, antzerkiarekin, musika, adimen emozionala eta herri jolasei lotutako jarduerak eskainiko dizkio publikoari ekimenak. Egun bakoitzean programa bi gunetan egingo dute, 17:00etatik 20:00etara, eta jarduerak begirale talde batek koordinatuko ditu. Eguraldi txarra egon arren, programa garatu ahal izango dela bermatzeko, ekintza guztiak karpa txikien azpian egingo dituzte.

Saioak

Auzoka aurreko ostiralean hasi zen Santa Eugenia plazan eta Aldapa parkean, antzerkiari eta jolas herrikoiei eskainitako jarduerarekin, hurrenez hurren. Bi gune horietan ere izango dira jarduerak hurengo egunotan: urriaren 23an, azaroaren 6an eta 10ean, eta abenduaren 4ean eta 18an (ostiralak), eta abenduaren 12an ere, larunbata.

Ostiral honetan, urriak 16, *Auzoka* Bizkaia Zubia plazara eta Malakate parkera helduko da. Areetan, musika ardatz duten jolasak antolatuko dituzte, musika-tresnak eskura egongo dira haurrentzat, soinu-uharte bat eta dantza-pista ere antolatuko dira. Bestalde, Andra Marin *Zentzumenen bidaia* izenekoa izango da, non, ondo pasatzen duten bitartean, haurrek emozioak identifikatzen ikasiko dute lau pertsonaiaren eskutik.

Jarduerak aipatutako bi agertokitara urriaren 30ean, azaroaren 13an eta 27an, eta abenduaren 11n, ostiralak, itzuliko dira, baita ekimenaren azken egunean, abenduaren 19an, larunbatean, ere.

Pasaportea eta materiala

Auzokan parte hartzen duten umeek pasaporte bat jasoko dute, jardueretan parte hartu ahala osatu ahal izango duena.

Ekimenari buruzko informazio guztia eta jardueretan erabiliko dituzten material didaktikoak eskuragarri daude www.sacodj.com/auzoka webgunean.

KIROLAK

Jagoba Mardarasek Arraunaren historia Algortan osatu nahi du

Jagoba Mardaras getxotarra *La historia del remo en Algorta* gaiari buruzko testu bat prestatzen ari da, eta datuak, dokumentazioa, argazkiak edo beste material interesgarri batzuk eman ditzaketen pertsona guztien laguntza eskatzen du.

"Testuaren helburua da Algortan arrauna garatzen eta finkatzen lagundu duten pertsona guztiei lekukotza ematea eta omenaldia egitea, denboraren joanak hainbeste belaunaldiren lana, ahalegina eta ilusioak oroimenetik ezabatzea saihestuz, eta informazioa modu objektibo eta kontrastatuan eskainiz", adierazi du.



1919ko Abrako estropadetan parte hartu zuen Algortako Bariko San Nikolas arrantzale eta marinelen Kofradiako traineruko tripulazioa

Horretarako, testuaren bertsio ez-editagarri bat jarri du helbide honetan: https://pressbooks.pub/arriluze/.

Edukia modu irekian eta doan kontsulta daiteke. Egilearekin harremanetan jartzeko, helbide elektroniko honetara jo behar da: jmbom35@duck.com

Emaitza onak RCMA-RSCrentzat



Marítimo del Abra-R.S.C. Itsas Klubeko José Luis de Ugarte Bela Eskolak lehen sei postuak lortu zituen joan den asteburuan jokatu zen RC Náutico San Sebastián bela Sarian, ILCA klasean. Garaipena Jon Berasateguirentzat izan zen Aketx Otxarri eta Gaspar Gallingerren aurretik. 420 klasean, Natalia Chavarrik eta Jose Mari Martinezek hirugarren tokian amaitu zuten.

Madre del Divino Pastor ikastetxearen XII. lasterketa Solidarioa



Areetako Madre del Divino Pastor Ikastetxeak bere Lasterketa Solidarioa datorren ostegunean, urriak 29, ospatuko du. Aurten XII. edizioa beteko du eta Txurruka kaian izango da, 15:30ean hasita.

Lasterketa irekia da parte hartu nahi duten guztientzat. Horretarako, dortsala erosi ahal izango dute ikastetxean (Gobela kalea, 17. Areeta) edo ikastetxearekin harremanetan jarri helbide honetan: comunicacion@mdivinopastor.es .

Dortsalen salmentaren diru-bilketa SoM MDP (Solidaridad y Misión Madre del Divino Pastor) erakundeak jasoko du oso-osorik. Erakunde hori Latinoamerikako MDP eskolen hezkuntza-esparruan giza garapenerako eta garapen iraunkorrerako lankidetza-proiektuak gauzatzeaz arduratzen da.